



E.A.E.KO ADMINISTRAZIO OROKORRA  
ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA C.A.E.

PROGRAMA	PROGRAMA
0111 ZOR PUBLIKOA	0111 DEUDA PÚBLICA
ARDURADUNA	RESPONSABLE
90 ZOR PUBLIKOA	90 DEUDA PÚBLICA
EKONOMIA, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILBURUORDETZA	VICECONSEJERÍA DE ECONOMÍA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

## HELBURUA

1. AURREKONTU-LEGEAK ZORPETZE-ERAGIKETENGATIK EKITALDIRAKO EZARTZEN DITUEN DIRU-SARRERAK ESKURATZEA, AHALIK ETA FINANTZA KOSTURIK TXIKIENAREKIN, BATEZ BESTEKO BIZITZA ZABALTZEN.
2. ZORPETZE-ERAGIKETEN ZATIETAKO BAT "IRAUNKORRA" KALIFIKAZIOA DUTEN TRESNEKIN EGITEA.
3. ZORPETZEAREN KUDEAKETA AKTIBOA EGITEA.
4. ZORRAREN SALDO BIZIAREN KUDEAKETAN ETA ADMINISTRAZIOAN ERAGINKORTASUNA HOBETZEA.
5. EMANDAKO RATINGAK HOBETZEA, JAULKITZAILEAREN KAUDIMENAREN NAZIOARTEKO ADIERAZGARRI (AA-/A3/A-).

## BETETZE MAILA

1. AURREKONTU-LEGEAK ZORPETZE-ERAGIKETENGATIK EKITALDIRAKO EZARTZEN DITUEN DIRU-SARRERAK ESKURATZEA, AHALIK ETA FINANTZA KOSTURIK TXIKIENAREKIN, BATEZ BESTEKO BIZITZA ZABALTZEN.

2021erako Aurrekontuei buruzko otsailaren 11ko 1/2021 Legeak zorpetze-eragiketak baimentzen ditu, muga honekin: ekitaldiaren amaierako saldoak ezingo du gainditu ekitaldiaren hasierako saldoa, ez behintzat 1.784.314.641 eurotik gora. Gehikuntza-muga horrek eta ekitaldiko aurrekontuko amortizazioek, hau da, 767.731.176 euro, 2.552.045.817 euroko jaulkipen-zifra baimentzen dute.

Diruzaintzaren bilakaeraren eta aurrekontuaren likidazioa egikaritzeko aurreikuspenen etengabeko segimendua oinarri hartuta, baita finantza-merkatuen egoera kontuan hartuta ere, beste 3 mailegu gauzatu dira, formatu ezberdinekin, eta 102 milioioak izango dira. Gainera, bi bono-jaulkipen egin dira 1.200 milioio zenbatekoarekin. Horrekin batera, lau mailegu birnegoziatu dira, dagokien

## OBJETIVO

1. OBTENCIÓN DE LOS INGRESOS POR ENDEUDAMIENTO FIJADOS PARA EL EJERCICIO EN LA LEY DE PRESUPUESTOS MINIMIZANDO SU COSTE FINANCIERO Y AMPLIANDO LA VIDA MEDIA.
2. REALIZACIÓN DE UNA PARTE DEL ENDEUDAMIENTO A TRAVÉS DE INSTRUMENTOS CON LA CALIFICACIÓN DE "SOSTENIBLES".
3. REALIZACIÓN DE UNA GESTIÓN ACTIVA DEL ENDEUDAMIENTO.
4. INCREMENTAR LA EFICIENCIA EN LA GESTIÓN Y ADMINISTRACIÓN DEL SALDO VIVO DE DEUDA.
5. MEJORA DE LOS RATING CONCEDIDOS COMO EXPONENTE INTERNACIONAL DE LA SOLVENCIA DEL EMISOR (AA-/A3/A-).

## GRADO DE CUMPLIMIENTO

1. OBTENCIÓN DE LOS INGRESOS POR ENDEUDAMIENTO FIJADOS PARA EL EJERCICIO EN LA LEY DE PRESUPUESTOS MINIMIZANDO SU COSTE FINANCIERO Y AMPLIANDO LA VIDA MEDIA.

La Ley 1/2021, de 11 de febrero, de Presupuestos para 2021, autoriza operaciones de endeudamiento, de forma que el saldo al cierre del ejercicio no supere el correspondiente saldo al comienzo del mismo en más de 1.784.314.641 euros. Este límite de incremento unido a las amortizaciones presupuestadas del ejercicio, 767.731.176 euros, permite una cifra de emisión de 2.552.045.817 euros.

En base a un seguimiento constante de la evolución de la Tesorería, así como de las previsiones de ejecución de la liquidación presupuestaria y atendiendo a la situación de los mercados financieros, se han realizado dos emisiones de bonos por 1.200 millones. Adicionalmente se ha procedido a la renegociación de cuatro préstamos con la correspondiente novación ampliando el plazo de los



E.A.E.KO ADMINISTRAZIO OROKORRA  
ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA C.A.E.

berritzearekin, horien epea luzatuz eta finantza-kostua egokituz Horrek esan nahi du guztira 1.200.000.000 euroko kopurua formalizatu dela, dagoen muga baino zenbateko txikiagoa.

Zorpetze berria formalizatzek eta benetan egindako 667,71 milioi euroko amortizazioak 532,29 milioi euroko zorpetzearen hazkunde garbia ekarri dute.

Kapital-merkatuen bilakaeraren etengabeko segimendua egin da, aipatutako eragiketak aurretiaz egiteko momentu eta ezaugarri egokienak zehazteko, ahal izan den neurrian.

## 2. ZORPETZE-ERAGIKETEN ZATIETAKO BAT "IRAUNKORRA" KALIFIKAZIOA DUTEN TRESNEKIN EGITEA.

2018an Eusko Jaurlaritzak zorpetze-premien zati bat finantzatzeko estrategiari ekin zion «bonu jasangarriak» jaulkiz. Horrelako bonuen jaulkipenarekin lortutako funtsak Euskadi Basque Country 2030 agendarekin lerrokatutako proiektuak finantzatzeko erabiltzen dira. Agenda horrek islatzen du Gobernu Programak Garapen Jasangarriko 17 Helburuekin (GJH) lotutako helburu eta xedeekin duen lerrokatze eta ekarpen maila. Bonu berdeen, bonu sozialen eta bonu jasangarrien jaulkipenek Nazioarteko Kapital Merkatuen Elkarrekin ezarritako Bonu Berdeen (GBP euskaraz BBP) eta Bonu Sozialen Printzipioen hastapenei jarraitzen diete. Estrategia horren barruan, 2019an eta 2020an, Gobernuak hiru bonu jasangarri jaulki zituen, helburu berarekin eta printzipio berberak betez.

2021ean, 1.000 milioi euroko Bonu Jasangarrien jaulkipen berria egin da eta horrek ekitaldiko zorpetze berriaren zatirik handiena ekarri du, 1.200 milioikoa. Funtsak, aurreko ekitaldietakoen antzera, Euskadi Basque Country 2030 Agendarekin lerrokatutako proiektuak finantzatzeko erabili dira, Bonu Berdeen Printzipioei (GBP Euskaraz=BBP) eta Bonu Sozialen Printzipioei (BSP) jarraituz.

## 3. ZORPETZEAREN KUDEAKETA AKTIBOA EGITEA.

Aurreko ekitaldian ez da inolako estaldura eragiketarik prestatu, finantza-merkatuen bilakaera kontuan hartuz ekitaldian izandako arriskuaren banaketa arrazoizkotzat jo baita, eragiketa bizien multzotik eratorritako arrisku-egituraren arabera.

Aipatutako lau mailegu berritzeak baino ez dira egin, maileguen epea bi eta bederatzirte artean handituz eta interes-tasak murriztuz. Horrek gure zorroaren batez besteko bizitza luzatzea ekarri du eta era berean finantza-kostua murriztu egin da.

*mismos y adecuando su coste financiero. Esto supone un total formalizado de 1.200.000.000 euros, un importe inferior al límite existente.*

*La formalización de nuevo endeudamiento junto con la amortización efectivamente realizada de un importe de 667,71 millones de euros ha dado lugar a un incremento neto del endeudamiento de 532,29 millones.*

*Se ha llevado a cabo un seguimiento constante de la evolución de los mercados de capitales con el fin de delimitar, en la medida de lo posible, los momentos y características más idóneos para la realización de las operaciones citadas con anterioridad.*

## 2. REALIZACIÓN DE UNA PARTE DEL ENDEUDAMIENTO A TRAVÉS DE INSTRUMENTOS CON LA CALIFICACIÓN DE "SOSTENIBLES".

*El Gobierno Vasco inició en 2018 la estrategia de financiación de parte de las necesidades de endeudamiento a través de la emisión de "bonos sostenibles". Los fondos obtenidos con la emisión de este tipo de bonos son empleados para financiar proyectos alineados con la agenda Euskadi Basque Country 2030, que refleja el grado de alineamiento y contribución del Programa de Gobierno con los objetivos y metas vinculados a los 17 Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS). Las emisiones de los bonos verdes, los bonos sociales y los bonos sostenibles siguen los principios de los Bonos Verdes (GBP) y los Principios de Bonos Sociales (PBS) establecidos por la Asociación Internacional de Mercados de Capitales. Dentro de esa estrategia en 2019 y 2020 el Gobierno realizó tres emisiones de bonos sostenibles, con la misma finalidad y cumpliendo los mismos principios.*

*En 2021, se ha realizado una nueva emisión de Bonos Sostenibles por importe de 1.000 millones de euros, que ha supuesto la mayor parte del nuevo endeudamiento del ejercicio por 1.200 millones. Los fondos han sido empleados, de la misma forma que los de ejercicios anteriores, para financiar proyectos alineados con la Agenda Euskadi Basque Country 2030, y siguiendo igualmente los Principios de los Bonos Verdes (GBP) y los Principios de Bonos Sociales (PBS).*

## 3. REALIZACIÓN DE UNA GESTIÓN ACTIVA DEL ENDEUDAMIENTO.

*Durante el pasado ejercicio no se ha instrumentado ninguna operación de cobertura al considerar razonable a tenor de la evolución de los mercados financieros la distribución del riesgo existente durante el ejercicio, en función de la estructura del riesgo derivadas del conjunto de operaciones vivas.*

*Únicamente se han realizado las cuatro novaciones de préstamos referidas, incrementando el plazo de los préstamos entre dos y nueve años y reduciendo sus tipos de interés. Esto ha supuesto el incremento de la vida media de nuestra cartera con una reducción del coste financiero.*



E.A.E.KO ADMINISTRAZIO OROKORRA  
ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA C.A.E.

#### 4. ZORRAREN SALDO BIZIAREN KUDEAKETAN ETA ADMINISTRAZIOAN ERAGINKORTASUNA HOBETZEA.

Balore-merkatuei buruzko araudiaren aldaketaren ondorioz, 2016. ekitaldian Bilboko Burtsako Kontuko Idatzoharren Zerbitzuaren kontuko idatzoharren erregistroa Sociedad y Gestión de los Sistemas de Registro, Compensación y Liquidación de Valores SAri (IBERCLEAR) eskualdatu zitzaion, eta Norbolsa, Sociedad de Valores SA izendatu zen agente gisa jardun dezan sozietate horren aurrean. 2020. urtean, bosgarren aldiz erregistroa eta likidazioak erakunde berri horiek eraman dituzte aurrera ekitaldi oso batean, prozedura berriak erabilita, eta ez da aipatzeko moduko gorabeherarik gertatu.

#### 5. EMANDAKO RATINGAK HOBETZEA, JAULKITZAILEAREN KAUDIMENAREN NAZIOARTEKO ADIERAZGARRI (AA-/A3/A-).

Pandemia agertu zenetik munduko erreferentziazko esparru ekonomiko eta sozial guztiak hankaz gora jarri ziren urtean, azken bi urteetako ratingak hobetzeko bidea sendotu eta mantentzea izan da helburua.

Aurrekoa lortzeko, urtero bilera bat egin da nazioarteko hiru agentzia ospetsuenekin, Standard & Poor's, Moody's Investors Service eta Fitch Ratings alegia, beren informazioa eguneratzeko, eskura dauden datu berrien arabera (aurreko aurrekontuaren likidazioa, berriaren neurria, zorraren bolumena, etab.). Era berean, informazio osagarria igorri zaie aldiro-aldiro egin dizkiguten eskaerei erantzunez, harreman malgua eta jarraitua ezartzearen bi aldean artean.

Aurrekoa aintzat hartu, hiru agentziek honako kalifikazio hauek eman dituzte:

- Standard & Poor's AA -, ikuspegi egonkorrarekin.
- Moody's Investors Service: A3, ikuspegi egonkorrarekin.
- Fitch Ratings A -, ikuspegi egonkorrarekin.

Horrek esan nahi du agentzia horien notak edozein autonomia-erkidegorenak baino hobekak direla, eta Estatuaren nota ere gainditu da biren kasuan.

#### 4. INCREMENTAR LA EFICIENCIA EN LA GESTIÓN Y ADMINISTRACIÓN DEL SALDO VIVO DE DEUDA.

Como consecuencia de la modificación de la normativa sobre mercados de valores en el ejercicio 2016 se procedió al traspaso del registro en anotaciones en cuenta del SAC de la Bolsa de Bilbao a la Sociedad de Gestión de los Sistemas de Registro, Compensación y Liquidación de Valores, S.A. (IBERCLEAR), y se designó a Norbolsa, Sociedad de Valores, S.A. como Agente ante esa sociedad. 2020 ha sido el quinto ejercicio completo en el que tanto el Registro como las liquidaciones han sido llevadas y realizadas por las nuevas entidades y con nuevos procedimientos sin la aparición de incidencias reseñables.

#### 5. MEJORA DE LOS RATING CONCEDIDOS COMO EXPONENTE INTERNACIONAL DE LA SOLVENCIA DEL EMISOR (AA-/A3/A-).

En un año en el que tras la aparición de la pandemia se trastocaron todos los marcos de referencia mundiales económicos y sociales, el objetivo ha sido el consolidar y mantener la senda de mejora de los ratings existentes de los dos últimos años.

Para ello se ha llevado a cabo una reunión anual con cada una de las tres agencias internacionales más prestigiosas, Standard & Poor's, Moody's Investors Service y Fitch Ratings, para actualizar su información a tenor de los nuevos datos disponibles (liquidación del presupuesto anterior, magnitud del nuevo volumen de endeudamiento, etc.). Asimismo, se les ha remitido información adicional de forma periódica en atención a sus demandas con el fin de implementar una relación ágil y fluida entre las dos partes.

Considerando lo anterior, las tres agencias han otorgado las siguientes calificaciones:

- Standard & Poor's: AA -, con perspectiva negativa.
- Moody's Investors Service: A3, con perspectiva estable.
- Fitch Ratings: A -, con perspectiva estable.

Esto supone mejores calificaciones de las tres agencias que cualquier otra comunidad autónoma, superando la nota del Estado en dos de ellas.